

Zeberioko Udalaren  
V. plangintzaldirako (2013-2016) udal barruko  
euskararen erabilera plana

## AURKIBIDEA

3. orrialdea .....	Sarrera
5. orrialdea .....	Zeberiko Udaleko lanpostu eta langileen hizkuntza egoera
9. orrialdea .....	V. plangintzaldirako hizkuntza irizpideak

## SARRERA

### Planaren testuingurua

EAEko **Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak**, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntz eskubideak aitortu eta herri-aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntza eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurrerikusten du, eta baita administrazioetako plantiletan bi hizkuntza ofizialak jakitea derrigorrezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere.

Euskal Autonomi Erkidegoko **Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen** V. titulua eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erreglamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla ez ezik herri administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza prozesuaren oinarri ere badira.

Horri loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) euskal herri administrazioetako euskararen erabileraren normalkuntza-prozesuak izan zuen helburu nagusia administrazioaren giza bitartekoak arian-arian euskaraz ere jarduteko gaitzea izan zen.

Bigarren plangintzaldia araupetzen duen Euskal Autonomi Erkidegoko **86/1997 Dekretuak**, apirilaren 15ekoak, elementu berriak erantsi zizkien lehenengo plangintzaldiko arauari.

Izan ere, lehen plangintzaldian aurrerapauso nabarmenak eman ziren euskarazko hizkuntza gaitasuna zuten langileen kopuruan. Bigarren plangintzalditik aurrera, administrazioaren baitan euskarazko erabilera areagotzeko ardura eta, hori lortzeko, neurri osagarriak hartu beharra ageri da.

Horrela, 86/1997 dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri die euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak adierazten dira aipatu dekretuaren 18. atalean.

Urrats horiekin loturik, Zeberioko Udalak indarrean dagoen arautegia zein bere eskumeneko eremurako emandako jarraibide eta ordenantzak betez, berari dagokion **euskararen erabilera normalizatzeko plana** landu zuen.

Euskara planaren **helburu nagusia** da udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara plan honen **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko ditu:

1. Herritarrekiko harremanetan **euskara zerbitzu hizkuntza** izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.
2. Euskara beste **administrazioekiko harremanetako** hizkuntza izan dadin bermatzea.

3. Euskara **administrazio barneko lan hizkuntza** izan dadin bermatzea.

Zeberrioko Udalak lehenengo plan hau 2001ean onartu zuen. Ondoren, euskararen normalizazioan aurrerapausuak emateko asmoz, beste bi plan ere onartu izan ditu.

Orain esku artean dugun agiria ez da planon balorazio txostena, V. Plangintzaldirako proposamena baizik. Berton, gaur egun lanpostu eta langileei dagokienez dagoen egoera eta Zeberrioko Udalak euskararen normalizazioan erabiliko dituen hizkuntza irizpideak baizik.

Horrela ba, hau da Zeberrioko Udalean gaur egun lanpostuei eta lanpostuok betetzen ari diren langileen egoera eta V.plangintzaldirako erabiliko ditugun hizkuntza irizpideak:

## **1.- ZEBERIOKO UDALEKO LANPOSTU ETA LANGILEEN HIZKUNTZA EGOERA:**

Zeberioko euskara plan honen helburua apurka-apurka, hizkuntza gaitasuna lortu ahala, lanean dauden langile guztiena izatea da. Hala ere, Zeberioko Udalean erabilera plan erreal bat egiteko egungo hizkuntza egoera kontuan hartu beharra dagoela irizten diogu. Beraz, printzipioz erabilera planean sartuko diren udal langileak hizkuntza eskakizuna egiaztatuta dutenak izango dira, eta gainontzekoak egiaztatze bidean jarriko ditugu, euskara ikastaroetan izena eman dezaten sustatuz.

Beraz, ondorengo lanpostu zerrendan adierazten dugu zeintzuk diren erabilera planean txertatuko diren langileak.

Idazkaritza Saila						
Lanpostuaren izaera	Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Erabilera planean sartuta	Langile titularrak egiaztatutako HE	Lanean dagoen langileak egiaztatutako HE
Orokorra	Idazkari/Kontu-hartzailea	4 HE	2000/12/28	Ez	--	--
Jendurrekoa	Administrari-laguntzailea	2 HE	2000/12/28	Bai	2 HE	--
Jendurrekoa	Liburutegi eta administrari-laguntzailea	2 HE	2000/12/28	Bai	--	Alf 0

Euskara Saila						
Lanpostuaren izaera	Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Erabilera planean sartuta	Langile titularrak egiaztatutako HE	Lanean dagoen langileak egiaztatutako HE
Jendurrekoa	Euskararen normalkuntzarako teknikaria	4 HE	Berehalakoa	Bai	--	4 HE

Zerbitzu Saila						
Lanpostuaren izaera	Lanpostuaren izena	Lanp. HE	DD	Erabilera planean sartuta	Langile titularrak egiaztatutako HE	Lanean dagoen langileak egiaztatutako HE
Berezia	Alguazila	2 HE	2000/12/28	Bai	2 HE	--
Berezia	Peoia	1 HE	2000/12/28	Bai	--	Alf 0
Berezia	Peoia	1 HE	2000/12/28	Bai	--	Alf 0

## 2.- V. PLANGINTZALDIRAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

### 2.1 Sarrera

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak diotenarekin bat, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da, eta euskara eta gaztelania dira Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako hizkuntza ofizialak. Hortaz, erkidegoko herritar guztiek badute euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea; herri administrazioek –eta bereziki, toki administrazioek eta haien menpeko erakunde publiko guztiek–, berriz, bi hizkuntzok erabiltzea bermatu behar dute administrazioaren barruko zein kanpoko harremanetan.

Nolanahi ere den, herritarren eskubidea bermatzeak badakar, gehien-gehienetan, herri erakundeen erronka eta ahalegin handia, euskararen jakintza ez ezik, herritarren arteko erabilera sustatze aldera, hizkuntza bien ofizialkidetasunari kalterik eragin barik.

Ingurumari horretan, ondoko lerroetan proposatuko diren hizkuntza irizpideek helburu dute Zeberioako Udalaren jardunbidean euskarak legez izan behar duen tokia bermatzeko hainbat neurri proposatzea. Hala ere, irizpideok ezartzerakoan, kontuan izan beharko da euskarak udalerrian bertan nolako egoera daukan.

### 2.2 Udal administrazioaren hizkuntza-irizpideak

#### □ *Udal barruko harremanak*

- Udalaren osoko bilkuretan, gobernu batzordearen batzarretan edo informazio batzordeen batzarretan, partaideek gura duten hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute. Hala ere, behar izatekotan, organo bakoitzak aztertu eta erabakiko du zein bitarteko baliatu hizkuntza dela-eta bileraren jarduna oztopatu ez dadin, eta kide guztien adierazpenak taxuzko moduan entzun eta jaso daitezten.
- Oinarrizko irizpide gisa, administrazio-atal elebidunetan eta euskarazkoetan, langileek eurek egingo dituzte euskarazko agiri, idazki eta bestelakoak. Horretarako, udalak beharrezko tresnak [hiztegi orokor eta terminologikoak, euskarazko programak, zuzentzailea...] eskuetaratuko dizkie, eta trebakuntza ikastaroak antolatuko ditu haientzat.
- Udaleko langileei eskaintzen zaizkien prestakuntza-ikastaroen artean, euskarazkoen kopurua areagotuko ditu udalak; ildo horretan, udalak erabilera planaren barruan dauden langileei euskarazko saioa eskainiko die.

#### □ *Langileak kontratatzean bete beharreko irizpideak*

Oinarrizko irizpide gisa, udal langile guztiek lanpostuaren araberako hizkuntza-gaitasun egokia izan beharko dute. Udalak hizkuntza-gaitasun hori lortzeko bitartekoak eman beharko dizkie behar besteko hizkuntza-gaitasunik ez dutenei, ikastaro edo besteren bitartez.

Udal langile eta funtzionarioak hautatzean, aintzat hartuko dira hizkuntza irizpideok:

- **Lanpostu berria sortzen denean**, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizunari eta –hala badagokio– derrigortasun-datari buruzko txostena egingo du Euskara Zerbitzuak. Dena dela, edozein erabaki hartu aurretik, gaiaren inguruko txostena eskatuko zaio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari. HPSren irizpena jakinda, udalbatzak erabakiko du zein hizkuntza eskakizun –eta, hala badagokio, derrigortasun-data– esleituko dion lanpostuari.
- **Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak betetzerakoan:**

*Derrigortasun-data igarota*, hizkuntza eskakizuna nahitaez egiaztatu beharko da hautaketan. Funtzionarioei dagokienez, prestakuntza edo praktika-aldia egonez gero, hizkuntza eskakizuna pealdi horretan egiaztatu ahal izango da.

#### □ *Zerbitzuen kontratazioa*

Udalak edo haren arlo eta erakunde autonomiadunek zerbitzuak kontratatzekeo hizkuntza irizpideak –eta, hala badagokio– zehapenak zehaztuko ditu, eta kontratazio pleguetan txertatuko. Udalak hizkuntza-irizpideak betetzeko eskatuko die zerbitzuak kudeatzen dituztenei, kontratu-mota zeinahi dela. Hala ere, aipatutako kontratuetako hizkuntza irizpideak zehazteko, kontuan hartuko da eman beharreko zerbitzua zein den eta, batez ere, hizkuntzak erabiltzeko aukerari zelan eragiten dion.

##### *Hornikuntza zerbitzuak*

- Informatika-ekipoak eta software-a
- Argindarra

##### *Aholkularitza eta laguntza zerbitzuak*

- Hiri-antolamenduko azterlanak
- Bideragarritasun txostenak
- Urbanizazio proiektuen txostenak
- Prestakuntza-ikastaroak

##### *Udalaren ordezeko edo haren bidezko zerbitzuak*

- Familian esku-hartzeko psikologo eta hezitzaileak
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua
- Ludoteka
- Kale garbiketa

Beraz, kontratistak eskaini beharreko zerbitzuak herritarrekiko harremanak badakartza, udal administrazioari legezkiokkeen hizkuntza-beharkizun berberak beteko dira, eta honako neurri hauek hartuko dira:



a. Zerbitzuaren erabiltzaileek eta, oro har, herritar guztiek zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea errespetatuta eman beharko du zerbitzua kontratistak.

b. Kontratistak bi hizkuntzetan eskaini behar ditu herritarrentzako inprimakiak, liburuxkak eta antzeko agiriak.

Aipatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta horren jarraipena egin beharko da, eta baldintza horiek betetzen ez badira eta zerbitzua euskaraz eskaintzeko behar beste bitarteko jartzen ez bada, udalak espedientea bidera dezake kalte-ordainak eskatzeko; gainera, urratzen den hizkuntza-betekizuna funtsezkoa bada, kontratua bertan behera utzi ahal izango da.

Atal honetan jasotako egoera guztietan, aintzat hartu behar dugu herritarrek zerbitzuaren kontsumitzaile direla, eta, beraz, bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu behar du kontratistak, behean adieraziko den moduan:

– *Kontsumitzaileak edo erabiltzaileak (herritarrek) berak soilik euskara erabiltzea nahi duela adierazi ezean, bi hizkuntzetan idatziko dira atxikipen kontratuak, klausula-ereduak dituzten kontratuak, araupeko kontratuak, baldintza orokorrak eta kontratu horiei buruzko edo horiek egitearen ondoriozko agiriak.*

– *Zehazki kontsumitzaileei (herritarrei) zuzendutako jakinarazpenak bi hizkuntzetan eman beharko dira, baita fakturak, aurrekontuak eta antzeko agiriak ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileak (herritarrek, gure kasuan) berak soilik euskara erabiltzea aukeratu ezean.*

– *Bi hizkuntzetan adieraziko dira, halaber, produktu eta zerbitzuak erabili eta mantentzeko jarraibideen liburuxkak, berme-agiriak eta etiketetan eta ontzietan adierazi beharrekoak.*

– *Kontsumitzaile eta erabiltzaileei (herritarrei, gure kasuan) zuzendutako produktu, ondasun eta zerbitzuen (ikastaroak, hitzaldiak...) eskaintza, sustapena eta publizitatea, erabilitako euskarria edozein dela ere, bi hizkuntzetan egingo da.*

Adjudikatzen den kontratuaren zioz, herritarrekiko harreman ohikorik sortzen ez bada ere, herritarrentzako argibideren bat eman behar izatekotan, euskaraz edo ele bietan emango dira, euskarria edozein dela, eta horrela jasoko da kontratazio pleguan.

Udalak zuzenean kontratatu ez arren, zerbitzua udalaren ordezkariaren bidez ematen bada (etxez etxeko laguntza zerbitzua, emakumeei arreta egiteko zerbitzua...), zerbitzuok aztertu eta kasuan kasuko neurriak hartuko dira herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

## □ **Herritarrekiko harremanak**

### *Ahozko harremanak*

- Euskaraz berba egiteko gaitasun nahikoa daukan langileak euskaraz esango du lehen hitza telefonoa hartzen duenean nahiz herritarrei aurrez aurre erantzun behar dienean. Gainera, aurrez aurreko arreta eskaintzen dutenek euskaraz badakitelako ikurren bat erabiliko dute.

- Hartzaile jakinik ez duten mezuak (esaterako, erantzungailuko mezuak edo bozgorailutik ematen diren mezuak) euskaraz edo ele bietan emango dira, udalerriko egoera soziolinguistikoa zein den. Ele bietan emanez gero, euskarazkoa bestearen aurretik entzungo da.

### *Idatzizko harremanak*

- Oinarrizko irizpide gisa, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira pertsona fisiko zein juridikoentzako berri-emate eta agiri guztiak; hala ere, interesdun pribatuek beren beregi soilik euskaraz jasotzea hautatzen badute, hala egingo da. Bestetik, eskabidea euskaraz egiten duten herritarrei euskara hutsean erantzungo zaie; eskabidea gaztelaniaz edo ele bietan egiten dutenei, berriz, bi eletan erantzungo zaie, betiere agiri honetan aipatutako irizpideak aintzat hartuta.

### *□ Beste administrazio batzuekiko harremanak*

- Oinarrizko irizpide gisa, udalak dokumentazio guztia hizkuntza ofizial bietan bidaliko die gainontzeko herri-administrazio eta erakunde ofizialei.
- Bestalde, euskara ofiziala duen herri erakunderen batetik agiriak gaztelania hutsean jasoz gero, udalak ele bietan bidaltzeko eskatuko dio dagokionari.

### *□ Udalaren irudia*

- Ekitaldi publikoetan udalaren ordezkari aritzen diren behargin zein zinegotziak aukeratzean, ele bietan ondo moldatzen direnak aukeratuko ditu udalak.
- Udalaren irudia darabilten argitalpen, inprimaki, errotulu, liburuxka eta, oro har, euskarri idatzi nahiz elektronikoko guztiak euskaraz edo ele bietan argitaratu behar dira, baina arreta handiz zainduko da euskarazko testuen kalitatea. Udalaren nortasun korporatiboaren adierazle diren elementu grafiko guztiek Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea bete behar dute.
- Gainera, aurretiaz eginda dauden euskarazko testuetako akatsak zuzenduko ditu udalak, batik bat, udalerriko ageriko elementuetan.

### *□ Diru-laguntzak*

Udalek edo haren erakunde autonomiadunek hizkuntzaren erabilera kontuan hartu behar dute laguntzak eta diru-laguntzak esleitzeko –eta, hala badagokio, laguntzen zenbatekoa finkatzeko–, hizkuntzen erabilerak laguntzaren xedean eragina badauka, batik bat, 10/1982 Legearen 25, 26 eta 27. artikuluek jasotzen dituzten jarduera-eremuetan.

- Udalak diruz lagundutako ekitaldi eta jardueretan euskararen erabilera bermatu behar da –bereziki umeei zein gazteei dagokienez–, bai ikastaroetan, bai ekitaldian bertan, publizitatean, aurkezpen, agur eta abarretan, udalerriko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta. Nolanahi ere, ekitaldia ele bietan egiten bada, euskarari lehentasuna emango zaio.

- Udalak diruz lagundutako argitalpenetan euskararen erabilera bermatu beharko da.

#### □ *Udal baimenak eta lagapenak*

Udal administrazioaren edo haren erakunde autonomiadunen lagapen edo baimenen menpe dauden jardueretan, euskararen erabilera bultzatu edo bermatu behar da, udalerriko egoera soziolinguistikoa zein den. Hala, dena delako jarduerak hizkuntzak erabiltzeko aukerari eragiten badio, udal sail eta erakunde autonomiadun bakoitzak zehaztuko ditu lagapen edo baimen horiek emateko baldintzak eta arauak, dena delako jarduerak hizkuntza-aukeran daukan eragin-mailaren heinean.

- Herriko jai eta bestelako ospakizunetan, euskarazko ekitaldiak bermatu beharko dira egitarauan, gutxienez, udalerriko euskaldunen kopuruari begiratuta, eta euskararen erabilera ziurtatu beharko da egitarau, esku-orri eta txosna, postu edo jolas-guneetako ageriko hizkuntza-paisaian. Horrez gain, euskarazko musika sustatuko da horietan guztietan.
- Ageriko elementuetan euskararen erabilera ziurtatzeko eskatuko zaie eraikuntzalanak egiteko baimen eske udalera jotzen dutenei.
- Udalak euskarazko errotuluak jartzeko diru-laguntzen eta beste laguntzen berri (esaterako, itzulpen zerbitzua edo laguntza teknikoa) emango die udalerrian saltokia zabaltzeko eskabidea egiten duten pertsoneri.
- Jendaurreko edozein jarduera edo negozio antolatzeko (batik bat, aisialdi, kultur eta kirol jarduerak antolatzeko), udalaren instalazioak eta azpiegiturak erabiltzen dituzten pertsonen, elkarteek eta taldeek neurriak hartu beharko dituzte jarduerotako zerbitzua euskaraz emateko.

### 2.3 Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak

#### □ *Testu elebidunak*

Herritarrak beren beregi euskararen aldeko aukera ebatzi ezean, oinarri-oinarrizko irizpidea izango dugu udaleko agiri ofizial guztiak ele bietan egitea, batik bat, administratuekiko harremanak sortzen badituzte. Alabaina, testu elebidunak gertatzean, euskarazko testua lehenetsiko dugu gaztelaniazkoaren aldean, honako era hauetan:

- Hitzak elkarren ondoan baldin badatoz, jarri aurretik edo gaineratik euskarazkoa. Esate baterako:

**ZIURTAGIRIA  
CERTIFICADO**

**ZIURTAGIRIA / CERTIFICADO**

- Bi hizkuntzetan idatzitako testuak orrialde berean ageri badira, jarri goian euskarazkoa eta behean gaztelaniazkoa.
- Orri bakarrean eta alde banatan idazten bada (euskarazkoa alde batean eta gaztelaniazkoa bestean), sartu gutuna euskarazko aldetik ager dadin gutunazala zabaltzen denean.
- Testuak bi zutabetan idazten direnean, gorde ezkerrekoa euskarazko testuarentzat. Hala ere, euskarazko testua nabarmendu dezakegu tamaina handiagoa, letra-tipo lodiagoa... erabilia.

## URTEKO JARDUEREN TXOSTENA MEMORIA ANUAL DE ACTIVIDADES

- Orrialdeka idazten badugu, gorde eskuinekoa euskararentzat.
- Arruntean, bizkaiera erabiltzen den udalerrri euskaldunetan bizkaieraz idatziko dira udal agiriak, baldin eta udalerriko edo lurraldeko hedadura badute.

### □ *Karteleria*

Udalak beren beregi euskararen aldeko aukera ebatzi ezean, oinarri-oinarrizko irizpidea izango dugu udalak edo berak kontratatutako zerbitzu-enpresek antolatutako jarduerak iragartzeko kartel guztiak ele bietan egitea. Alabaina, testu elebidunak gertatzean, euskarazko testua lehenetsiko dugu gaztelaniazkoaren aldean, honako era hauetan:

- Euskarazko testua jarriko da aurretik edo gainerik.
- Euskarazko testua nabarmendu dezakegu tamaina handiagoa, letra-tipo lodiagoa... erabilia.

### □ *Seinale eta errotuluak*

Testua euskaraz jarriko da, piktograma batez lagundurik.

Arruntean, bizkaiera erabiltzen den udalerrri euskaldunetan herriko euskara erabil daiteke honakoetan.